



## **EUSKADIKO FILMATEGIA FUNDAZIOA**

### **Sozietatearen izena**

Euskadiko Filmategia Fundazioa

### **IFK**

G20854410

### **Izaera**

Fundazioa.

### **Kontabilitate-arabidea**

Pribatua.

### **Aurrekontu-arabidea**

Ez da aplikatzekoa.

### **Sorrera**

Fundazioa irabazi-asmorik gabeko erakundea da, eta 2004ko azaroaren 29an eratu zen. Fundazioen Erregistroan inskribatu zen [“Fundación Filmoteca Vasca, Euskadiko Filmategia Fundazioa” Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeari buruzko Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza sailburuaren 2005eko maiatzaren 27ko AGINDUA](#) betez.

### **Sail-atxikipena**

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saila.

### **EJSN**

5917 Zinematografia- eta bideo-banaketako jarduerak.

### **Fundazioaren xedea eta helburua**

Honako hauek dira fundazioaren xedek: oro har zinema eta bereziki euskal zinema aztertzeko interesgarri diren ikus-entzunezko lan eta filmak ikertzea, berreskuratzea, artxibatzea, gordetzea, eta, hala badagokio, ematea; kultura- edo historia-ikuspegitik gordetzea merezi duten zinema-dokumentu eta material teknikoak bildu eta zaintzea; eta oro har zinema eta bereziki euskal zinema sustatu eta hedatzeko interesgarri diren proiektu guztietan parte hartzea.

### **Sailkapena kontabilitate nazionalean**

Sozietate ez-finantzarioak.

### **Fundazio-zuzkidura**


18.000 €

### **Fundazio-zuzkiduraren osaera**

Fundazio-zuzkidurak bi osagai ditu: batetik erakunde fundatzaileek egindako ekarpenak (18.000 €), eta, bestetik, fundazioa eratu zenez geroztik etorri diren ekitaldietako soberakin positiboen intsuldaketak.

12/12/31n, erakunde fundatzaileek fundazio-zuzkidurari egindako ekarpenak honela banatzen dira:

EAEko Administrazio Orokorra	%50,00
Gipuzkoako Foru Aldundia	%50,00



### Patronatua

Patronatua fundazioaren gobernu, administrazio eta ordezkartzarako organo gorena da, eta bere kontu izango ditu fundazioaren helburuak gauzatzeko beharrezkoak diren kudeaketaren gidaritza eta kontroleko eskumen guztiak. Honako hauek dira 2012ko ekitaldiko urteko kontuak egin dituzten Patronatuko kideak:

José Ángel María Muñoz jauna	Presidentea. EAEko Administrazio Orokorra.
Clara Montero Telletxea andrea	EAEko Administrazio Orokorra.
Ikerne Badiola andrea	Gipuzkoako Foru Aldundia.
Garazi López de Etxezarreta andrea	Gipuzkoako Foru Aldundia.
Carmen Gutiérrez andrea	Arabako Foru Aldundia.
Jon Artatxo jauna	Arabako Foru Aldundia.

### 2012ko ekitaldiko urteko kontuak

[2012ko abenduaren 31ko urteko kontu laburtuei eta auditoriari buruzko txostena.](#)

### 2012ko ekitaldiko ekonomia- eta finantza-magnitude nagusiak

Aktiboa guztira	2.485.276 €
Ondare garbia	2.365.814 €
Salmentak eta merkataritza-jarduerako beste sarrera batzuk	12.071 €
Batez besteko langile-kopurua	12

### Sozietatearen helbidea

Antso Jakituna 17 (atzealdea) 20010 Donostia-San Sebastián (Gipuzkoa)

### Webgunea

[www.filmotecavasca.com](http://www.filmotecavasca.com)